Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1201

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 16koa, Ogasun eta Finantza sailburuordearena; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta honen erakunde autonomoen tasak eta prezio publikoak kudeatzeko zenbait alderdi arautzen dituen dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua interesdunei entzuteko izapidearen mende jartzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta honen erakunde autonomoen tasen eta prezio publikoen kudeaketaren zenbait alderdi arautzen dituen dekretua aldatzeko asmoz, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dekretu-proiektu bat landu du. Hori dela-eta, dekretu-proiektu hori izapidetu beharra dago, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

Lege horren 8.1 artikuluaren arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Dekretu-proiektu hau landu egin da, hain zuzen ere egun indarrean dagoen araudia Tasa eta Prezio Publikoen Legearen testu bateginera egokitzea beharrezkoa baitzen; halaber, likidazio eta autolikidazioen araudiaren zenbait alderdi zehaztu beharra zegoen, bai eta Administrazioaren Ordainketa eta Kobrantzen Sistema Integrala eta Ordainketa Pasabidea garatu ere. Araudi berriak ez du presio fiskala areagotuko, baina testuan arautzen diren ordainarazpenen subjektu pasibo diren herritarrei eragingo die oro har.

Horrelako herritarrek ez dute erakunde edo elkarterik osatzen, denak bildu eta ordezkatuko dituenik, subjektu pasiboak baitira. Hori dela-eta, entzunaldiaren izapidea zuzenean egin beharra dago, 8/2003 Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Horretarako, nahikoa izango da hogei egun balioduneko epea ematea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezarri zituen otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuaren 18.1.a).7 artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1201

RESOLUCIÓN de 16 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Hacienda y Finanzas, por la que se somete a trámite de audiencia el proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se regulan determinados aspectos de la gestión de las tasas y de los precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

En el Departamento de Hacienda y Administración Pública se ha elaborado el proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se regulan determinados aspectos de la gestión de las tasas y de los precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, por lo que procede su tramitación, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

De acuerdo con el artículo 8.1 de la citada Ley, las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos y ciudadanas serán objeto del trámite de audiencia. La regulación que se pretende, aún no suponiendo un aumento de la presión fiscal y teniendo su origen en la necesidad de adaptar la normativa vigente al texto refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos, así como en la concreción de algunos aspectos de la regulación relativa a las liquidaciones y autoliquidaciones, en paralelo al desarrollo del Sistema Integral de Pagos y Cobros de la Administración y Pasarela de pagos, afectará a la generalidad de los ciudadanos que pueden constituirse en sujetos pasivos de las exacciones reguladas en el texto modificativo.

Teniendo en cuenta que dichos ciudadanos no están integrados en organización o asociación alguna que los agrupe o represente por su condición de sujetos pasivos, la audiencia debe realizarse directamente, de acuerdo con el artículo 8.3 de la ley 8/2003, considerándose suficiente el plazo de veinte días hábiles a partir del siguiente al de la publicación de esta resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 18.1.a).7 del Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por le que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

EBATZI DUT:

1.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogei egun balioduneko epean, interesdunei entzuteko izapidearen mende jartzea honako dekretu-proiektu hau: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta honen erakunde autonomoen tasen eta prezio publikoen kudeaketaren zenbait alderdi arautzen dituen dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua.

2.– Pertsona fisiko eta juridikoek, publiko zein pribatuek, kontsultatu ahal izango dute aurreko paragrafoan aipatutako dekretu-proiektuaren espedientea, baldin eta dekretu horrek ukitu dezakeen bidezko interes baten jabe direla uste badute. Horretarako, goian adierazitako epearen barruan, honako helbide honetarako jo beharko dute: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Tf.: 945 01 89 46. Esandako epean eta tokian, halaber, egoki iritzitako alegazio, agiri eta justifikazioak ere aurkeztu ahal izango dituzte.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 16a.

Ogasun eta Finantza sailburuordea,
JUAN MIGUEL BILBAO GARAI.

RESUELVO:

1.– Someter a trámite de audiencia, por un plazo de veinte días hábiles a partir del siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, el proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se regulan determinados aspectos de la gestión de las tasas y de los precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

2.– El expediente del proyecto de Decreto al que se refiere el número anterior podrá ser consultado por todas las personas físicas y jurídicas, públicas y privadas, que se consideren titulares de un interés legítimo que pudiera resultar afectado, en el plazo anteriormente citado, en la Dirección de Administración Tributaria, sita en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, 01010 en Vitoria-Gasteiz. Tfno. 945 01 89 46. En el mismo plazo y lugar se podrán presentar las alegaciones, documentos y justificantes que se estimen convenientes.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de febrero de 2009.

El Viceconsejero de Hacienda y Finanzas,
JUAN MIGUEL BILBAO GARAI.